

Zorionekoak Lakuako larreetakoak

190.831 PERTSONA dira langabezian Hego Euskal Herrian, datu horiek irakurtzen ditut lerro hauek idazten ari naizen egunean. Eta bai, batek gogoratzen du nola duela bi urte lagunaren artean aipatzen zen oraindik ez zela asko sumatzen gure inguruan; gogoratzen du iaz langabeziaren mamua gure umeen eskolara iritsi zela eta guraso ezagun batzuk ukitu zituela; eta gogoetak alde batera, orain ikusten dut mamua etxe ingurura ere hurbildu izan dela, alde egin ere bai, baina hurbildu dela: "2011koa gainditu dugu, ozta-ozta baina gainditu". Eta 2012koa?

Milaka herritarren galdera da eta euskarazko hedabideetan ari gare-nok ere galdera ikur bertsuak ditugu. Duela urte batzuk "euskarazko hedabide ez publikoek" esan beharko genuen, baina gaur egun ez. EitBko langileekin soldatetan parekatzeko gure sektorearen desioak jai; orain eta hemen, 2012koarekiko askoren beldurak homologatzen gaitu.

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaitsiera gogorra izango da datorren urtean: euskarazko hedabideentzat, %15, %12, %8... badirudi kopuru horien bueltan izango direla murrizketak. Eta Jaurlaritzarenak dira euskarazko hedabideen diru-laguntza garrantzitsuenak. Beti estu

ibili denarentzat asko da, azken urteetan egoera larrian dabilenarentzat hilgarria izan liteke.

Sektorekoak bildu gara euskal gizarteko politikari eta agintariekin, urte hasieran erabaki genuen taldean bakarka baino hobeto moldatuko ginela eta horretan jardun dugu urtean zehar; eta horretan ari gara. Ez dugu eskatutakorik lortu, ezta iazko diru-laguntzei eustea ere. Gipuzkoako Diputazioan ere duela bi urte egindako murrizketa handiaren gainean (%23 oro har eta, adibidez, ARGIAK %63 gutxiago) egin dira hedabideen diru-laguntzen aurrekontuak. Bakar-rak igo ditu, Bizkaiko diputazioak.

BAINA ZORIONEKOAK gu, Lakuako larreetan bazkatzen gare-nok, Nafarroako larreetan 2012an ez dutelako ezer bazkatzekorik izango. Oraingoz bederen, euskarazko hedabideei ematen zaizkien diru-laguntzen kopuruak eza-batu egin dituzte 2012ko aurrekontuen lege proiektutik. Eta aurtengoan ere... Kontua da 2011ko diru-laguntzetan Nafarroako Gobernuak 160.000 euro esleitu zituela euskarazko hedabideentzat. 80.000 euro ekainean eman zitzairen eta orain iragarri diete falta zaien erdiaren %35 ez zaiela banatuko. Eta oso posible da

falta den erdi horretatik ezer ez banatzea ere. Inpunitatearen goren da.

Orain arteko UPN-PSN gobernua-ren erabakiak dira, ikusiko dugu Legebiltzarretik iragatean zer gertatzen den, baina ezin da ezusteko handirik espero. Eta kontua da ea zer egin behar den Nafarroako euskarazko hedabideen egoera larrian eskua luzatzeko. Zer eskatu behar diegun EAEko instituzioei, zer herri-tarrei, zer gainerako hedabideei, zer... Eta blokeo egoera dator.

Eta batek madarikatzen du Abia-dura Handiko Trenaren proiektua lau urte atzeratu ez izana, gaur egungo egoera ekonomikoak berak akaso bidera ezina egingo lukeelako halako proiektu baten hasierarik. Eta zementuaren kulturako dirutza horiek euskarazko hedabideak bul-tzatzeke erabili ahal izango lirakeelako adibidez, edo enpresa txiki-en finantzazioa laguntzeko, edo ban-kuek beren etxetatik botatzen dituztenen alokairuak laguntzeko, langabezi sariak luzatzeko, hainbati jaten emateko... Horiek eta beste hainbat gauza egin ahalko lirakeke euskal lurretako AHT proiektuetan gastatuko diren 10.000 milioi euroekin. 10.000 milioi euro.





Mario Vargas Llosa
PANTALEON ETA BISITARIAK
Itzulpena: Santi Leoné



Joxean Agirre
ZWEI FRAUEN
(BI EMAKUME)



Joseba Sarrionandia
NARRAZIO GUZTIAK
(1979-1990)

Heldu literaturari
www.elkarargialetxea.com **elkar**